

**Haurrak babesteko  
arduraduna, funtsezko  
eragile kirol-erakundeetan  
babes-kultura sortzeko:  
eginkizunak, profila eta  
ezarpen-prozesuaren  
erronkak zehazteko  
proposamena**



**ATERPE**  
HAURREN BABES GUNEA  
ÁREA DE PROTECCIÓN DE LA INFANCIA





## Aurkibidea

1. Sarrera: haurrentzako kirola .....	3
2. Haurrak eskubideen subjektuak dira .....	4
3. Kirol segurua .....	5
4. Indarkeria eta tratu ona .....	6
5. 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa .....	7
6. Legeak kirolean dituen ondorio orokorrak .....	8
7. Ondorio bereziak .....	9
<b>2.</b> 8. Legeak non jasotzen ditu Haurrak babesteko arduradunaren eginkizunak? .....	10
9. Figuraren helburu orokorrak .....	13
10. Kirolean haurrak babesteko arduradunaren eginkizunak ezartzeko elementuak .....	14



## 1. Sarrera: haurrentzako kirola

Kirol-jardueretan parte hartzen duten haur guztiek gune seguru/babeslea behar dute, eta kirolariaren ongizatearen inguruan sentibilizatuta, trebatuta eta arduratuta dauden helduak izan behar dituzte inguruan.

Kirola da hurrek denbora gehien ematen duten hirugarren esparrua, familiaren eta hezkuntzaren ondoren. Ezinbestekoa da kirola haurrak babestu beharreko esparru garrantzitsutzat hartzea.

Kirola funtsezko tresna da haurren garapen integralerako, egoki erabiltzen bada.

Kirolak ongizate-, poz-, zoriontasun- eta askatasun-esparrua izan behar du haurrentzat. Ezin dugu ahaztu zertarako egiten duten kirola hurrek; besteak beste:

- Ondo pasatzeko.
- Dibertitzeko.
- Lagunak egiteko.
- Euren kirol-trebetasunak hobetzeko.
- Emozionatzeko.
- Irabazten saiatzeko.





## 2. Haurrak eskubideen subjektuak dira

Kirola egiten duten haurrak eskubideen subjektuak dira. Haurrak ez dira kirolari bakarrik. Kirola egiten dute gure erakundeetan, klubetan edo kirol-eskolan, baina hurrek bestelako beharrak eta garapen-eremuak dituzte. «Kirolaritzat» soilik hartuz gero, kirol-jardueraren inguruan gauden helduok «ahaztu» egiten dugu beste eremu horiek ere zaindu, babestu eta landu behar ditugula.

Haur guztiek dute kirola egiteko eskubidea, haien ongizatea lehenesten duen giro osasuntsu eta babesgarri batean. Gure kirol-erakundeetan betebeharra da hori. Hurren aurkako indarkeria-egoera asko normalizatuta daude edo ikusezinak dira oraindik ere kirolean.

Hurren kirolaren inguruko erakunde eta pertsona guztiek haiek zaindu eta babesteko ardura onartu behar dute. Aurrerapauso handia eman behar dugu haurrak babesteari eta ondo tratatzeari dagokienez.



### 3. Kirol segurua

Kirola funtsezkoa da haurrentzat, eta, beraz, haurren kirol-jardueraren inguruan gauden erakunde publiko, tokiko administrazio, federazio, kirol-erakunde, klub eta pertsonen dagokigu jarduera hori segurua dela bermatzea. Haurrentzat, kirola hazkunderako tresna oso indartsua izan daiteke ondo erabiltzen bada, hazkunde pertsonal, fisiko, emozional eta sozialerako, alegia.

Baina, **zer esan nahi du kirol-jarduera bat haurrentzat segurua izateak?** Segurua izan dadin, **baldintza batzuk bete behar ditu, nahitaez:**

- Kirol-jardueraren inguruan dauden helduek **kontuan izan behar dute** kirola funtsezkoa dela haurrentzat, askatasun-eremua dela haientzat.
- Haurrak **eskubideen subjektuak** dira.
- Horregatik, ezinbestekoa da **haurren eskubideen ikuspegia** kontuan izatea.
- Haurrek kirol-jardueran izan ditzaketen arriskuen gaineko azterketa bat behar dugu, arrisku fisikoak, emozionalak eta psikologikoak kontuan hartzen dituena.
- Eremu horietako bakoitzean antzemandako arriskuak gutxitzeko neurriak proposatu behar ditugu etengabe.
- Haurren kirol-jardunaren inguruan dabiltzan heldu guztiei gutxienezko prestakuntza eskaini behar diegu.
- Jokabide-kodeak diseinatu, idatzi, gizarteratu eta bete.
- Egoera salagarrien eta susmagarrien aurrean jarraitu beharreko **jarduketa-protokoloak** diseinatu, ezagutu eta gizarteratzea: jarduketa egokia.
- **Salaketa-kanal ezagunak** aktibatzea.
- **Haurren parte-hartzea** bideratzea.

• 5





## 4. Indarkeria eta tratu ona

**Adingabekoen aurkako indarkeria hor dago.** Kirolaren munduan ere badago. Haurren kontrako indarkeriazko jarduera gehienak ikusezinak eta ezkutukoak diren arren, horrelakoak pairatzen dituzten haurrengan inpaktu negatiboa sorrarazten jarraitzen dute. Sarritan ez gara gertatzen ari denaz ohartzeko, indarkeria hori intimitate-eremuetan ezartzen baita; izan ere, familiarren, eskolaren eta kirolaren inguruneetan gertatzen dira kasu gehienak, hau da, haur eta nerabeentzat segurtasuneko eta garapen pertsonaleko esparruak izan beharko liratekeen horietan.

Haurrak kirolean ere eskubideen subjektu direla kontuan hartzen badugu, oinarrizko eskubideez baliatzea ahalbidetuko dieten ekintzak sustatu behar ditugu. **Nahitaez**, oinarrizko premiak –osasuna, elikadura egokia, babesak, hezkuntza, osasuna eta abar– betetzeko balio duten **ekintzen hartzaile** izan behar dute. **Baina ez hori bakarrik.**

Haurren aurkako indarkeriaren prebentzioak, haurrek kirolean izan behar duten babesak, funtsezko osagarri bat izan behar du: **tratu ona. Babestea, aurea hartzea, prestatzea, funtsezkoak dira, baina haurrak ondo tratatzea ere bai.**

Haurrentzat garapen-eremu garrantzitsua den kirolaren inguruan gauden helduak garenez, *«haurrei eskaini behar dizkiegun zaintza-, babes-, errespetu-, laguntza-, maitasun-, entzute- eta sozializazio-ekintza guztiekin»* dago lotuta tratu onaren kontzeptua.

**6.** Tratu ona lagungarria da haurrekin lan egiten duten erakundeen barruan babes-giroa eta -kultura eraikitzeko. Haurren garapenerako giro osasungarria da hori. Eragin oso positiboa du maila afektiboan, psikologikoan, sexualean, fisikoan eta sozialean.

Kirol-erakundeetan ondo tratatzea lehentasun izateak balio erantsi nabarmena dakar. Tratu ona estuki lotuta dago erakunde-kultura aldatzarekin. Ondo tratatzea funtsezko elementua da kirolean haurren aurkako indarkeria normalizatzen duen kultura aldatzeko. Aintzat hartzekoak dira tratu onarekin lotura duten elementu hauek:

- Kirol-jarduerak hartzen dituzten kirol-instalazioak.
- Kirol-jardueraren arduradun diren helduen gaitasuna, esperientzia, prestakuntza eta trebakuntza.
- Kirol-jardueran parte hartzen dutenen zaintza emozionala eta psikologikoa.
- Haurrekiko komunikazio egokia, konfiantza- eta erreferentzia-loturak sortzeko.



## 5. 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa

Haurren eskubideei dagokienez, aspaldi espero zen Legea onartu zen 2021ean. Edozein indarkeria-motaren aurrean haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideak bermatzea xede duen estatu mailako lehenengo Legea da. Horren bidez, haur eta nerabeen garapen askea ziurtatu eta sentsibilizazioa zein prebentzioa barne hartuko dituzten erabateko babeserako neurriak finkatu nahi dira.

Horrelako lege batek oinarrizko lege-esparrua eskaintzen dio haurren erabateko babesaren inguruko lanari. Haurrak eta nerabeak babesteko baliabide erabakigarria izan behar da, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasota dagoenez: 19. artikulua arabera, estatuen betebeharra da lege-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurriak hartzea haurrak era guztietako kalte edo abusu fisiko edo mentaletatik babesteko, axolagabekeria edo zabarkeriazko tratuetatik, tratu txarretatik eta esplotaziotik, sexu-abusua barne.

Legeak elementu garrantzitsu batzuk ditu. **Prebentzioa da nabarmentzen den ikuspuntu nagusia.** Haurrak paira ditzakeen **indarkeria-mota guztiei aurrea hartzea** da helburua. Era berean, tratu onaren kontzeptua **prebentzioarekin** lotuta dago. Bestalde, Legearen edukia hainbat eragile, erakunde, administrazio, pertsona eta entitateri dagokie. Eragile horiek testu osoan zehar aipatzen dira, eta bakoitzarentzat erantzukizun eta ekintza zehatzak proposatzen ditu.

Prebentzioarekin eta tratu onarekin batera, kontzeptu hauek ere oso kontuan hartzekoak dira: **indarkeria antzematea, biktimei arreta ematea eta kaltearen erreparazioa.**

.7





## 6. Legeak kirolean dituen ondorio orokorrak

Legearen artikulua batzuetan hurrekin lan egiten duten eremu guztietan orokorrean aplikatu beharreko gaiak aipatzen dira. Beraz, bertan jasota dagoenak kirol-erakunde eta -profesional guztiei ere eragiten die:

- 5. art. Hurrekin lan egiten duten pertsona guztiek izan behar duten **gutxieneko prestakuntza**.
- 15. art. **Komunikazio-betebeharra**.
- 16. art. **Komunikazio-betebehar kualifikatua**.
- 17. art. **Hurrek indarkeria-egoerak jakinaraztea**.





## 7. Ondorio bereziak

Lehen aldia da zehazki kirolaren arloari eskainitako atal bat jasotzen dela haurren eskubideen babesari buruzko Lege baten artikuluen artean. Legearen bi artikulutan azaltzen dira kirolaren arloari dagozkion ondorioak:

- **47. art. Eremu honetan jarduketa-protokoloak** eskura izan behar direla dio. Administrazio publikoak aipatzen dira berariaz, baina Legearen izpirituak kirolean hurrekin lan egiten duten erakunde guztietara zabaltzen du betebeharrori.
- **48.1 art.** «Adingabekoekin kiroleko eta aisialdiko jarduerak egin ohi dituzten erakundeentzako» zenbait betebeharrak zehazten ditu:
  - Aurreko artikuluan aipatzen diren **jarduketa-protokoloak** aplikatzea.
  - **Protokolo horiek betetzen direla ziurtatzeko monitorizazio-sistema** ezartzea.
  - **Haurren babeserako ordezkaria** izendatzea. Adingabekoei haren inguruan jo dezakete beren kezka adierazteko. Hura arduratuko da finkatutako protokoloak ezagutzera eman eta beteazteaz, eta beharrezkoak diren komunikazioei ekiteaz haur edo nerabeen aurkako indarkeria-egoeraren bat antzematen den kasuetan.
  - **Beharrezko neurriak** hartzea, kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisialdia ez daitezkeen diskriminazio-gune izan, adin, arraza, desgaitasun, sexu-orientazio, sexu-identitate edo genero-adierazpena direla eta, edo bestelako egoera pertsonal edo sozial medio. Halaber, irainak eta adierazpide umiliagarri eta diskriminatzaileak erabiltzeari uko egiteko jarrera lantzea haur eta nerabeekin, familiekin eta profesionalekin.
  - **Haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzea** haien prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.
  - **Kirol-erakundeen eta gurasoen** -edo adingabekoen tutoretzaz, zaintzaz edo harreraz arduratzen diren helduen- arteko **harremanak eta komunikazioa sustatu eta indartzea**.
- **48.2. artikulua** dioenez, 5. artikulua adierazten duen prestakuntzaz gain, aipatutako erakundeetan lan egiten dutenek **trebakuntza berezia jaso behar dute desgaitasuna duten haur eta nerabeen trebetasun eta gaitasunei arreta egokia eskaintzeko**, eta haientzako kirol inklusiboa sustatu eta garatzeko.





## 8. Legeak non jasotzen ditu Haurrak babesteko arduradunaren eginkizunak?

8/2021 Lege Organikoan, ekainaren 4koan, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoan, **48.1. artikuluan** berariaz adierazten da **kirol-erakundeek nahitaez izan behar dutela Haurrak babesteko arduradun bat**. Arduradun hori izatea derrigorrezkoa dela dio, baina **ez ditu zehatz-mehatz azaltzen haren eginkizunak eta profila**.

Legearen aurreko artikuluetan zehatzago azalduta aurkituko dugu antzeko arduradun baten zeregina, beste arlo batekoa bada ere. **35. artikuluan**, ikastetxeetan nahitaezkoa den **Ongizate eta bizikidetzako koordinatzailearen figura aipatzen da**. Artikulu horretan **zehatzago azaltzen dira** arduradun horren zereginak, eta horietako batzuk kirolaren arlora eraman ditzakegu.

### **Kirolaren arloan Haurrak babesteko arduradunaren eginkizunak zehazteko orduan kontuan hartu eta aztertu beharreko oinarritzko elementuak**

- Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu kirola haurren garapenerako esparrurik garrantzitsuenetakoa izan daitekeela, eta aintzat hartu beharreko ezaugarri berezi batzuk dituela. **Historikoki, kirolaren kultura ez da egon kontzeptu hauetatik hurbil: haurrak babestea, indarkeriaren prebentzioa eta haurrak ondo tratatzea**. Ez da «hurbilketa» hortaz konturatu, nonbait.
- Bigarrenik, haurrak babestearekin, haurren aurkako indarkeriari aurrea hartzearekin eta ondo tratatzearekin lotutako lana, berau garatzen den **testuingurura egokituta egon behar da**. Testuingurua osatzen dute, besteak beste, **lekuak, kulturak, kirolak, kirol-erakunde motak, partaide diren haur-motek...**
- Azken elementua **ezarritako legezko betebeharra** da. Berriki onartutako Legeak aurreikusten duenez, **figura hori derrigorrezkoa izango da kirol-erakundeetan**. Agindua oso argia da. Baina Legeak ez du garbi adierazten pertsona horrek izan behar duen profila, zer eginkizun izango dituen eta zein administrazioari dagokion horiek baliozkotzea. Hori guztia erregelamendua garatzean zehaztu beharko da.

Hemen aurkezten duguna ez da kirolaren arloan Haurrak babesteko arduradunak bete behar dituen eginkizunen zerranda zehatza. Gure analisiak eginkizun horiek zehazteko aztertu behar diren eremuei erreparatzen die, solaskide izan behar diren eragile guztiei, eta arduradunak zuzenean egin edo zuzendu behar dituen ekintzei. Analisia bideratzeko, zenbait metodologia erabili ditugu: galdera-erantzunak, check-list direlakoak eta taulak.



### **Administrazio, klub, federazio eta erakunde guztiek izan behar dute arduradun hori?**

- Bai. Guztiek izan behar dute, ez bakarrik Legeak agintzen duelako, baita ere funtsezko eragilea delako kirol-erakundeetan haurren eskubideak babesteko kultura sortzeko.
- Ez da bakarrik kirol-erakundeen eta klubuen betebeharra, batzuetan hori ulertzen bada ere.
- Kirola zuzentzen duten federazioek eta administrazio publikoek ere eduki behar dute figura hori; izan ere, funtsezko erakundeak dira, eta horien azpitik kirol-erakunde ugari daude, lan horren eraginpean egon beharko direnak.

### **Kirola zuzentzen duten federazioek eta administrazio publikoek, nahitaez exijitu behar al diete kirolean haurrekin lan egiten duten erakundeei horrelako arduradun bat izatea?**

- Bai, exijitu beharrekoa da.
- Progresiboki egin behar da, testuinguruaren arabera.
- Haurren kirola zuzentzen duten administrazio publikoek eta federazioek, figura hori exijitzeaz gain, erakundeei lagundu behar diete ardura hori progresiboki martxan jartzen, eta, hala badagokio, giza baliabideak, prestakuntzakoak eta ekonomikoak bideratu.
- Kirolean haurrak babesteko arduradunaren figura, eragile horien arteko harremanean funtsezkoak diren elementuekin lotuta egon beharko litzateke: lehiaketa-oinarrietan, autonomia-erkidegoko arauetan, foru-dekretuetan eta antzekoetan figura horren beharra adierazi beharko litzateke.
- Figura hori zein haurrak babesteko politika dituen kirol-erakundeari puntuak eman behar zaizkio, diru-laguntzetarako kontuan har daitezten.

. 11

### **Kirolean haurrak babesteko arduradunaren figura, berdina izan behar al da kirol-erakunde edo -klub guztietan, haien tamaina edo pisua aintzat hartu gabe?**

- Ez.
- Kirolak, erakundeen tamaina eta lehiaketak askotarikoak izanik, figura hori erakundearen arabera egokitu behar da.
- Erakunde batzuek, haien aurrekontuaren eta haur-kopuruaren arabera, figura hori nahitaez izan beharko dute organigraman sartuta.
- Oso txikiak diren erakundeek, arduradun hori izendatu behar badute ere, erakunde handiago batean haurrak babesteko ardura duen pertsonaren laguntza, aholkua eta harremana izan beharko dute. (Erakunde handiago hori administrazio publikoa, federazioa edo erakunde-multzoa izan daiteke).



## Haurrak babesteko arduradunaren postua betetzeko aukera emango duen prestakuntza/aldez aurreko lanbidea bat bakarra al da?

- Ez.
- Gizarte-arloko titulua duten pertsonak: psikologia, gizarte-lana, kriminologia, soziologia, zuzenbidea, hezkuntza.
- Kultura fisikoaren arloko titulua eta hezkuntzako aipamena duten pertsonak.
- Zehaztu beharreko beste batzuk.

## Aldez aurreko prestakuntzaz gain, trebakuntza berezia behar da?

- Bai, jakina.
- Kirol-erakunde batean haurrak babesteko arduradunak izan behar duen gutxieneko aldez aurreko hezkuntza-profilaren inguruan eztabaida handia dago. Beraz, argi dago beharrezkoa dela ondorengo prestakuntza berezia izatea dagokion lana ondo egiteko.
- Prestakuntza bereziak, egokia izateko, gutxieneko ezaugarri eta baldintza batzuk bete behar ditu:
  - **Ezaugarriak dagokion administrazio publikoak exijitu, azaldu eta bermatu behar ditu.** Guretzat, funtsezkoa da exijentziak «homogeneizatzen» saiatzea, alde handirik egon ez dadin autonomia-erki-degoetan eskainiko diren prestakuntzen artean.
  - **Prestakuntza askotariko eragileek eskain dezakete:** unibertsitateek, hezkuntzako akademiek, enpresa pribatuek, aholkularitza-enpresa espezializatuek eta abarrek, betiere administrazioaren onespenean akademikoarekin. Administrazioak eskatu eta bermatuko du prestakuntza.
  - Finkatutako gutxieneko irizpide akademikoak bete eta **prestakuntza bermatutako erakundeek eskutik jaso duten pertsonak bakarrik aritu daitezke ofizialki** Haurrak babesteko arduradun gisa.
  - Kirol-erakundeek ezaugarrien arabera, **prestakuntza- eta exijentzia-maila desberdinak** egon daitezke. Ildo horretan, kirol-erakunde edo -klubaren aurrekontua eta adingabeko partaideen kopurua kontuan hartu eta tarteak/profilak finkatu behar dira.
  - Haurrak babesteko arduradunen profil bakoitzarentzat adostutako gutxieneko prestakuntza ezarri behar da.



## 9. Figuraren helburu orokorrak

- Erakundearen barruan, haurrak babesteko kultura-aldaketa zuzentzea.
- Erakundearen barruan, indarkeriari aurrea hartzeko eta haurrak babesteko lana zuzentzea.
- Kirol-erakunde barruko talde guztiak askotariko indarkeria-moten inguruan sentsibilizatzea.
- Erakunde barruan edo kanpoan gertatzen den eta haurren bati eragiten dion indarkeria prebenitzea eta antzematea.
- Helduek haurren kontra edo berdinen artean eragindako indarkeria prebenitzea eta antzematea.
- Kirol-erakundearen barruan, gaiarekin lotura duten beste eragile batzuekin batera lan egitea (babes-batzordearekin, hala badagokio).
- Komunikazio-kanal egokiak sortzea.
- Susmagarriak, zalantzazkoak edo kezagarriak diren kasuen kudeaketa integrala.
- Kanpoko erakundeekin koordinatzea, kasuak bidaltzeko.
- Kirol-jardunaren inguruko eragile guztientzat erreferente izatea haurren babesari dagokionez.



## 10. Kirolean haurrak babesteko arduradunaren eginkizunak ezartzeko elementuak

### 1. Kirolean haurrak babesteko arduradunaren eginkizunak

#### Erakundearen babes-planari dagokionez

##### Prebentzioa

Arriskuekin eta prebentzio-planen lanketarekin lotutako zeregin guztiak.

- **Barruko eta kanpoko arriskuak aztertzea:** fisikoak, emozionalak, psikologikoak, sexualak...
- Arriskuak lehenestea.
- Arriskuak gutxitzeko jarduketa-plana.
- Erakundearen erreferente izatea gai horretan.
- Erakundeko kideen aldetik, babesaren arduradunarekin harremanetan jartzeko **kanal egokia finkatu, zabaldu eta ezagutzera ematea.**
- **Prestakuntza-plana** eskura izatea.
- Haurren **parte-hartzea** sustatzeko ekintzak.

14 ·

##### Prestakuntza

Prestakuntzekin lotutako guztia. Prestakuntza-plana.

- **Kirol-profesionalen prestakuntza-beharrak aztertzea.**
- **Prestakuntza Plana egitea:**
  - Sarrera gisako prestakuntza orokorrak.
  - Prestakuntza bereziak, arriskuak modu egokian prebenitzeko, antzemateko eta komunikatzeko.
  - Gure kirolariek harremana duten kanpoko eragileentzako prestakuntza.
- **Gai jakinetan espezializatutako** kanpoko pertsonen eskaintako **prestakuntza.**

##### Jarduketa

Jarduketa-protokoloekin lotutako guztia. Protokoloak lantzea, gizarteratzea eta ezartzea. Salaketen kanala, kasuen kudeaketa.

- **Haurrak erabat babesteko programa** ezartzea
- Besteak beste **haurrekin zerikusia duten zeregin guztietarako jarduketa-protokolo bereziak ezartzea:** datu eta irudien erabilera, mediku-probak, joan-etorriak, ostatu-gauak eta online komunikazioa.
- **Jokabide Kodea** ezarri eta aplikatzea.
- **Haurren arreta integrala.**
- Profesionalentzako, familientzako eta kirolarientzako **aholkularitza eta laguntza.**





## Eremuari dagokionez

### **Barrukoak**

Erakundearen barruko elementu guztiak.

### **Kanpokoak**

Erakundetik kanpoko elementu guztiak.

- **Komunikazioa kudeatzea**, kasuak ixtea, dagokionean.
- **Familiekiko harremana.**
- **Kanpoko torneoak** Klubeko taldeentzat.
- Hirugarren batzuekiko harremana: **Enpresak / azpikontratak.**
- **Federazioekiko eta erakundeekiko harremanak.**
- **Komunikabideekiko harremana.**





## 2. Haurrak babesteko arduradunaren eginkizunak arlo hauetan:

### Partekatutako erantzukizunak

Erakundeak garrantzitsuak diren beste pertsona batzuek osatu dezaketen Babes Batzordearekin partekatutako erantzukizunak.

Babesaren arduradunak ez du zertan hartu behar zuzendaritzako kideren baten parte-hartzea eskatzen duen erabaki garrantzitsurik.

### Erantzukizun indibidualak

Arduradunaren eginkizunen artean daude prebentzioarekin, antzematearekin, prestakuntzarekin, laguntza ematearekin eta aholkularitzarekin lotuta dauden zereginak, eta baita gaia barruan eta kanpoan jakitera ematea ere, haur kirolariren bati eragiten dion indarkeriazko egoeraren batek halakorik eskatzen badu.

### Prozesuen zuzendaritza

Erantzukizun indibidualen barruan, **aldaketa-prozesuak bultzatu** behar ditu prebentzioari, prestakuntzari eta jarduketari dagokienez.

### Erakundeko profesionalen aholkularitza eta laguntza ematea

Haurrak babesteko arduraduna erreferentzia izan behar da eta laguntza eskaini behar die profesionalen, familiei eta kirolariei. Bere egitekoa ez da soilik exijitzea eta bidea erakustea; laguntza eman behar du sor litekeen edozein zalantza eta zailtasun aurre egiteko. Segurtasuna eman behar die profesionalen, kirolariei eta familiei.

### Erreferentzia erakundeko profesionalentzat eta adingabeko kirolarientzat

Haur kirolarientzat funtsezkoa da konfiantza-kultura sortzea. Hobe da kirol-erabakiekin zerikusirik ez duen pertsona izatea. Gure haur kirolarientzat komunikazio- eta partaidetza-kanalak bideratzen eredugarria den pertsona independentea.





### **3. Zeharkako beste eginkizun batzuk**

#### **Haurren parte-hartzea bideratzea**

- Haurren parte-hartzea funtsezkoa da **indarkeria prebenitzeko**.
- Kanalak sortzea, jarduerak bideratzea eta **haurrei feedback egokia ematea**.

#### **Barruko dokumentuak lantzea**

- **Barruko jarduketa-protokoloak** lantzea.
- **Hausnarketa egiteko eta eragiteko baliagarriak izango diren dokumentuak** egitea (barrurako eta kanporako).

#### **Kanpoan erakundearen ordezkari izatea gai honetan**

- **Biltzarretan, bileretan eta mintegietan parte hartzea**.
- **Erakundearen ordezkari izatea eta etengabeko prestakuntza jasotzea** profesionalak trebatzeko.

#### **Pertsonen lagundu eta aholkatzea**

- **Arduradun izatea erakundearen barruan erreferente** izatea da.
- **Laguntzeko, aholkatzeko eta exijitzeko** erreferente.

